

Emozioak

30-45 minutu / +3 urte

Haur guztiak borobilean jarriko ditugu eserita eta emozioak jorratzen dituen ipuin bat irakurriko dugu.

Landutako emozio bakoitzarekin marrazkiak egingo ditugu: alaitasuna, tristura, amorrua, beldurra, lasaitasuna...

Gazteek egindako marrazkiak lurrean jarriko ditugu, 15 zentimetroko tartez banaturik. Hau errazteko, alfonbra gardena erabil dezakegu.

Ondoren, egoera desberdinak asmatuko ditu eta gazteei egoera horien aurrean zein emozio sentitzen duten galdetuko diegu.

Adibidez: Esnatu eta dena elurtuta dagoela ikusi duzu.

Robota, emozio hori ordezkatzeko duen marrazkira eraman beharko dute.



Helburuak	Konpetentziak	Materiala
<ul style="list-style-type: none">Nor bera ezagutzeaEmozioak lantzea	Dizplinar-tekoak <ul style="list-style-type: none">Hizkuntza OK1 Metadiziplinarrak <ul style="list-style-type: none">Norbera izan OK11	<ul style="list-style-type: none">Beebot robotaEmozioen ipuinaAlfonbra gardenaMarrazkiak egiteko materiala

Aukera gehiago

- Emozio bakoitzaren marrazkia kolore batekin lotu dezakegu.
- Hasieran marrazkiak lerro batean jar ditzakegu, robotaren aurrera eta atzera bakarrik erabiltzeko. Baina ikasleak x eta y ardatzean mugitzeko gaitasuna badute, emozioak alfonbratik sakabanatu ditzakegu.
- Robotaren ibilbidea sekuentziatzeko sekuentzia txartelak erabil daitezke.